Zugaztel, M.P., S. A.rentzat ibilgailu hibrido bat (gasolina-elektrikoa) erosteko aukerarik gabe errentan hartzeko Zehaztapen Teknikoen Plegua

2024/05/31

AURKIBIDEA

1 XEDEA 3

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK 3

3 ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNAREN OBLIGAZIOAK 3

3.1 MANTENTZE-LANAK 3

3.2 ASEGURUAK 4

3.3 KILOMETRO GEHIEGI/GUTXIEGI 5

3.4 BESTE BATZUK 5

4 BALDINTZA BEREZIAK 6

4.1 KONTRATUA GAUZATZEA 6

4.2 SEGURTASUN ETA KONFIDENTZIALTASUN BALDINTZAK 6

4.3 JABETZA INTELEKTUALA 6

1 XEDEA

Plegu honen xedea da Zugaztel, M.P., S. A.rentzat ibilgailu hibrido bat (gasolina-errekuntzako motorra eta elektrikoa) erosteko aukerarik gabe errentan hartzea arautzen duten zehaztapen teknikoak deskribatzea.

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Jarraian, ibilgailuak izan behar dituen gutxieneko ezaugarriak zehazten dira:

- ✓ Mota: Autoa 5 ate.
- ✓ Merkataritza-segmentua: C
- ✓ Ibilgailu hibridoa, M1 kategoria.
- ✓ Plaza kopurua: 5.
- ✓ Kilometroak urtean: 30.000.
- ✓ Gasolina-errekuntzako motorra eta motor elektrikoa.
- ✓ Abiadura-kaxa: automatikoa.
- ✓ Sistemaren guztizko gutxieneko potentzia CVtan: gutxienez 120 CV.
- ✓ Motor elektrikoaren potentzia ez da 30 kW-tik beherakoa izango.
- ✓ CO2 isuriak: EURO 6 saikapena.
- ✓ Erregai-andelaren edukiera: gutxienez 40 litro.
- ✓ Hagunak: aleazioa.
- ✓ Aurrealdeko eta aurreko alboetako airbagak.
- ✓ Argiak: Led.
- ✓ Aire-girogailu bizona.
- ✓ Integrazio-sistema mugikorra.
- ✓ Hari gabeko kargagailua.
- ✓ Bluetooth esku libreko sistema.
- ✓ Aurreko eta atzeko kristal-jasogailu elektrikoak.
- ✓ Ixte-sistema zentralizatua.
- ✓ ABS+EBD
- ✓ Direkzio lagundua.
- ✓ Gurutzaldi-abiaduraren kontrola eta abiadura-mugatzailea.
- ✓ Egonkortasunaren, trakzioaren eta direkzioaren kontrola.
- ✓ Talka aurreko segurtasun-sistema.
- ✓ Laguntzailea, erreia nahi gabe aldatuz gero.
- ✓ Aparkatzeko kamera.
- ✓ Euriaren eta argien sentsorea.

3 ERAKUNDE ADJUDIKAZIODUNAREN OBLIGAZIOAK

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez gain, enpresa adjudikaziodunak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

3.1 MANTENTZE-LANAK

Errentan dagoen ibilgailuaren mantentze-lanak. Gutxienez, mantentze-lan hauek egingo dira:

- ✓ Markaren kontzesionarioetan edo tailer ofizialetan mantentze integrala egitea, esleitutako ibilgailuaren fabrikatzaileak adierazitako aldizkako azterketen planaren arabera. Ibilgailua entregatzean, mantentze-programa ere aurkeztu beharko da.
- ✓ Ibilgailuaren erabilera normalaren ondoriozko matxurak konpontzea.
- ✓ Pneumatikoak ordeztea 40.000km bakoitzeko, edo gurpil baten marrazkiaren sakonera 1,9 mm baino txikiagoa denean. Bai azken kasu horretan, bai gurpil bat zulatu, lehertu edo konpontzea eragozten duen beste edozein arrazoirengatik ordeztu behar bada, gutxienez eragindako gurpila eta ardatz bereko beste aldekoa ordeztuko dira. Pneumatikoak lehen markakoak izango dira.
- ✓ IATri dagozkion gastuak eta kudeaketa.

3.2 ASEGURUAK

Eskura jarritako ibilgailuak ibilgailu motordunaren asegurua izan beharko du kontratuaren bizitza osoan (modalitateak: "hirugarrenak", "arrisku orotakoa" eta "bidaiako laguntza"), frankiziarik gabe, eta jarraian adierazten diren gutxieneko ezaugarriak izan beharko ditu:

ESTALDURAK	BERMEAK	MUGAK
NAHITAEZ HARPIDETZEKO ERANTZUKIZUN ZIBILA (Legearen arabera)	PERTSONALAK	70.000.000 € ezbehar bakoitzeko
	MATERIALAK	15.000.000 € ezbehar bakoitzeko
BORONDATEZ HARPIDETZEKO ERANTZUKIZUN ZIBILA (Legearen arabera)	GORPUTZEKO KALTEAK ETA KALTE MATERIALAK	50.000.000 € ezbehar bakoitzeko
GIDARIAREN ISTRIPUAK	HERIOTZA	30.000€
	EZINTASUN IRAUNKORRA	60.000€
	OSPITALEKO ASISTENTZIA MEDIKOA	BARNE
DEFENTSA JURIDIKOA	DEFENTSA PENALA	BARNE, GIDARIARENTZAT BAINO EZ Aukera askeko profesionalak aukeratuz gero, gehienez ere 1.500,00 € ezbehar bakoitzeko
	FIDANTZAK	
	ERREKLAMAZIO JUDIZIALA ETA JUDIZIOZ KANPOKOA	

BEIRAK ETA KRISTALAK HAUSTEAREN AURKAKO ASEGURU OSAGARRIA	Ibilgailuaren beirak berriz jarriko direla bermatzen da, guztiz edo zati batean hautsi eta erabilezin uzten baditu.	BARNE
BIDAIAKO LAGUNTZA	- Laguntza medikoa - Ibilgailua erreskatatzea eta atoian eramatea. - Gidaria edo bidaiariak joaten diren lekura eramatea. elefono-zerbitzua eta laguntza-sarea 24 orduz.	Distantziagatiko mugarik gabe, eta 0 km-tik aurrera emango da.
ASEGURATUTAKO IBILGAILUAK IZANDADAKO KALTEAK	Kanpoko arrazoi batek eragindako istripu baten ondorioz ibilgailuak izandako kalteak, gidariaren borondatea edozein dela ere.	Guztizko galeraren kasuan, balio finantzarioaren % 100. Edozein kasutan, konponketa-balioaren % 100 erabat galtzea ez dakarten kalteen kasuan.
LAPURRETA	Hirugarrenek ibilgailua eta/edo ibilgailuaren zatiak eta osagarri finkoak legez kontra lapurtzea, bai eta eragindako kalteak ere.	Balio finantzarioaren % 100. Edozein kasutan, konponketa-balioaren % 100 erabat galtzea ez dakarten kalteen kasuan.

3.3 KILOMETRO GEHIEGI/GUTXIEGI

Lehenespenagatik edo gehiegizko kilometrajeagatik, gehieneko prezioa 0,05 €/ km da, ezarritako urteko 30.000 km-ekiko.

3.4 BESTE BATZUK

- ✓ Adjudikatutako ibilgailuaren erabilera enpresa errentariari lagatzea, enpresa errentatzailearen izenean matrikulatuta, zirkulatzeko egoera ezin hobean, bai funtzionalki, bai administratiboki, matrikulazio-gastu guztiak eta ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergaren urteko kuota barne, baimendutako langileek normal eta legez zirkulatu ahal izan dezaten.

- ✓ Ibilgailua ordeztea: matxuraren eta/edo ezbeharraren kasuan, baldin eta ibilgailua konpontzeak 24 ordu baino gehiago geldiaraztea badakar, ordezko ibilgailu batez hornituko da, erabiligabea zerbitzurako bajan dagoen bitartean. Ordezko ibilgailuak egindako kilometroak ordezkatuak egindakotzat hartuko dira.

Erabateko ezbeharra gertatuz gero, aurreko paragrafoan bezala jokatuko da, istripua izan duen ibilgailua behin betiko ibilgetuko dela kontuan hartuta. Kalte-ordaina, gehi haren hondarrak, adjudikaziodunari dagozkio, eta Zugaztelek ordezko obilgailuarekin jarraituko du, harik eta adjudikatutako ibilgailuaren ezaugarri bereko ibilgailua entregatu arte.

- ✓ Adjudikaziodunaren kontura izango dira ibilgailuaren egoera teknikoaren eta dokumentazioaren ondorioz sor daitezkeen zigorrak (IAT, dokumentuen konpultsak, etab.)

4 BALDINTZA BEREZIAK

4.1 KONTRATUA GAUZATZEA

Enpresa adjudikaziodunak urtero aurkeztuko du ibilgailuaren txostena, kilometrajea, egindako mantentze-lanak eta izandako gorabeherak jasotzen dituena.

4.2 SEGURTASUN ETA KONFIDENTZIALTASUN BALDINTZAK

Zugaztelek, behar izanez gero, bere sistema informatikoetan sartzen utziko du, aldez aurretik ezarritako prozedura eta baimenekin bat, eta kontratu honek zehaztutako zerbitzuak burutzeko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa emango dizkio adjudikaziodunari. Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du informazio hori Oinarri Teknikoen Pleguetako helburuetarako baino ez erabiltzeko; halaber, konpromisoa hartuko du informazio hori ez ateratzeko, ez lagatzeko, ez argitaratu edo saltzeko, osorik edo partzialki, ez euskarri informatikoan ez paperean, eta itzuli egin beharko ditu jasotako informazio-euskarriak, baita ekipo informatikoetatik deskargatu ere (baldin badaude), behin lana bukatuta.

Adjudikaziodunak segurtasun arloko konpromisoak bere gain hartu eta arauak bete beharko ditu lan hau dela-eta erabiliko dituen informazio-sistemei dagokienez, indarrean dagoen legeriarekin bat. Hala enpresa nola lan-taldea berariaz derrigortuta daude erabateko konfidentzialtasuna eta zuhurtzia gordetzera kontratua betetzean ezagutu dezaketen edozein daturi buruz, bereziki datu pertsonalak badira. Ezingo ditu kopiatu, ez Oinarri Teknikoen Pleguetako helburuetatik kanpo erabili, ezta gordetzeko beste batzuei laga ere.

Horretarako, datuak eskuratzeko orduan ahalik eta zuhurtasun handienaz jokatu beharko da. Ildo horretako edozein arau-hauste larritzat joko da, eta kontratua suntsiarazteko kausa izango da, hargatik eragotzi gabe sor daitezkeen erantzukizun penalak edo bestelakoak.

Adjudikaziodunak klausula bereziak bete beharko ditu, eta, zehazki, Klausula Berezien Pleguko "11.3. Datu pertsonalen babesa" eta "11.5. Informazioaren segurtasuna".

4.3 JABETZA INTELEKTUALA

Enpresa adjudikaziodunak honako klausula hauek onartzeko konpromisoa hartzen du:

- Lanarekin zerikusia duten jabetza intelektualaren eskubideak Zugaztelenak dira. Horren ondorioz sortutako edozein produktu edo azpiproduktu dagokion eremutik kanpo ezingo da beste helburu batzuetarako erabili, Zugaztelek berariaz idatziz baimentzen ez badu. Enpresa lizitatzaileak Zugazteli helaraziko dizkio artxibo guztien iturri guztiak, baita erabilitako programazio-baliabide guztiak ere.
- Lana egiten zen bitartean sortutako dokumentazioa Zugaztelen jabetza esklusibokoa da, eta enpresa adjudikaziodunak ezingo du jaso, ez eta kopia bat lortu edo hirugarrengoei eman ere, Zugaztelen idatzizko baimen zehatzik gabe. Hala badagokio, Zugaztelek baimen hori emango lioke, enpresak zertarako behar duen berariaz adieraziz eskaera formala egin ondoren. Paragrafo honetan xedatutakoa ulertuko da, ez bada kontratatutako lana egin dela frogatzeko gorde behar izatea. Zugaztelek berariaz ematen du baimena lan honen emaitzak erreferentzia gisa eta Zugaztelek berak etorkizunean egingo dituen lanen oinarri gisa erabiltzeko.
- Enpresa adjudikaziodunak Zugaztelek eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko du eta, datu pertsonalei dagokienez, arlo horretako indarreko legeria bete beharko du. Lanak egiten ari diren bitartean ezagut ditzaketen datu, informazio eta dokumentu guztiei buruz, enpresako kolaboratzaile guztiek erabateko lanbide sekretua gordetzeko konpromisoa hartzen dute, irudikapen modua (ahoz edo idatziz) alde batera utzita. Informazio horiek esklusiboki kolaboratzaileek lortuko dituzte, ezinbestez aipatzen ari garen eremuaren barruan atxikitako zereginak garatzeko behar badituzte. Guztiei ohartaraziko zaie lortuko duten informazioa zorrozki konfidentzial eta zuhurra dela.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak Zugazteli berehala jakinarazi beharko dio informazioaren segurtasun eta babes sistemaren akats edo ihesekin zerikusia duen edozein susmori buruz, hori lanak garatzen ari diren bitartean hautematen bada.

Kanariar Uharteak, 21, 3.solairua
48015 BILBO (Bizkaia)
Tel: (+34) 94 656 7717
Faxa: (+34) 94 401 2348
erosketakzugaztel@bizkaia.eus
http://zugaztel.bizkaia.eus

- Herritarrei arreta eskaintzeko kanal anitzeko azpiegituren diseinua eta garapena / *Diseño y desarrollo de infraestructuras multicanal para la atención a la ciudadanía*
- Dokumentuei alta eman eta horiek grabatu nahiz digitalizatzea zerbitzua / *Servicio de alta, grabación y digitalización de documentos*
- Herritarrei kanal orotako arreta ez-presentziala eskaintzeko zerbitzua / *Servicio de atención no presencial omnicanal a la ciudadanía*
- Marketin digitaleko zerbitzua: sare sozialen eta eduki digitalen koordinazioa, plangintza, argitalpena, monitarizazioa eta jarraipena / *Servicio de marketing digital: coordinación, planificación, publicación, monitorización y seguimiento de social media y contenidos digitales*